



Usurbilgo Udala

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO ABENDUAREN 10EAN GOIZEKO 10:18ETAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Agurtzane Solaberrieta Mesa.

**Zinegotziak:** Joxe Mari Iribar Zapirain eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

**Ez dira bertaratu:** Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Itziar Basterrika Unanue.

### **1.- 2019KO KIROLETAKO DIRULAGUNTZEN KITAPENA (BI URTE NATURAL HARTZEN DITUZTENAK).**

Esp.:KI.01/2019-0009

#### **Ikusirik**

2019ko kirol arloko egitasmoak burutzeko diru laguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 12an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko 20 eguneko epea emanaz.

Epea 2018ko martxoren 12an amaitu ondoren, lerro bakoitzari zegozkien diru-kopuruak erabaki ziren eta alegazioak egiteko epea zabaldu zen.

Alegazio-epea amaitu ondoren eta alegaziorik izan ez zenez,-aurreneko zatia eskatu zuten elkarteei %50a eman zitzaien.

Denboraldika edo bi urte naturalak hartzen dituzten jarduerak zurrizteko, elkarteei 2019ko irailaren 20 arteko epea zuten.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, zuriketa hauek aztertu ostean, dagokion txostena egin du

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2019an kirol egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO 2019/02/12).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (GAO 2017/07/18).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**



Usurbilgo Udala

**Lehenengoa:** 2019ko kirol egitasmoak garatzeko eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hauek onartzea.

1.- Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenatarako

Tximeleta	700,03€
Buruntzazpi	1.390,95€
Usurbil FT	3.571,85 €
Makax	668,53 €
Pagazpe	1.062,73€
Usurbil KE	2.640,45 €

2.- Kultur eta bestelako elkarteen kirol jardueretarako eta bi urte naturalak hartzen dituzten diru-laguntzetako bigarren ordainketa hau onartzea.

Einean	16,44 €
--------	---------

**Bigarrena:** Gastu hauek aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 01 Kirol tadeen ohiko diru-laguntza zuzenak (A 299-2019)

1.4300.481.341.00.07 Kirol elkarte ez direnen kirol jarduerak (A 303-2019-2018)

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioaren berri ematea.

**Laugarrena:** Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

## **2.- 2019KO KIROLETAKO NORGEHIAGOKA ERREGIMENENKOAK EZ DIREN DIRULAGUNTZEN KITAPENA.**

Esp.:KI.01/2019-0009

### **Ikusirik**

2019ko kirol arloko egitasmoak burutzeko diru laguntza oinarriak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 12an argitaratu ziren eskaerak aurkezteko urriaren 30era arteko epea emanez.

2018ko martxoren 12ra arte aurkeztutako eskaera guztiak kontuan hartu ziren eta lerro bakoitzari zegozkien diru-kopuruak erabaki ziren eta alegazioak egiteko epea zabaldu zen.

Alegazio-epea amaitu ondoren eta alegaziorik izan ezenez, lehenengoko lerroko proiektuei -aurreneko zatia eskatu zuten elkarteei %50a eman zitzairen eta bigarren eta hirugarren



Usurbilgo Udala

lerrokoiei %100 ordaindu zitzaien dirulaguntzaren oinarriak jarraituta.

Lehenengo lerroko, Laguntza berezietako, ekintzak burutu ahala, zuriketak ekarri dizkigute eta eskatzaileek 2019ko irailaren 20 artera arte honako zuriketak aurkeztu zituzten.

Oinarrietako 6. Artikuluan zehaztutakoaren arabera kirol teknikariak, zuriketa hauek aztertu ostean, dagokion txostena egin du

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO 2008/07/01).
- 2019an norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko diru-laguntza oinarriak (GAO 2019/02/12).
- Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen plan estrategikoa (GAO 2017/07/18).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2019ko norgehiagoka ez diren kirol egitasmoak garatzeko lehenengo lerroko, Laguntza berezietako, zuriketa egin ondoren, honako diru-laguntzetako bigarren ordainketa hauek onartzea.

1.- Laguntza berezietarako:

Usurbil K. E.	175,00€
Usurbil K.E.	450,00€
Joxe Mari Etxarri	981,25 €
Hurbilago	553,20 €

**Bigarrena:** Gastu hauek aurrekontu-partida hauen kargura joango dira:

1 4300 481 341 00 03 Laguntza bereziak (A 301-2019)

**Hirugarrena:** Interesatuei akordioaren berri ematea.

**Laugarrena** Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

**3.- 2020KO DIRULAGUNTZEN DEIALDI BATERATUKO OINARRI OROKORRAK ETA HAUEN ERANSKIN MODURA DOAZEN OINARRI ESPEZIFIKOAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: ID.23/2019-0279

**Ikusirik**



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian hainbat alorretan egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarri orokorrak atera nahi dituela.

Oinarri hauen helburua dela Usurbilgo Udalaren norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzen oinarri erregulatzailerak ezartzea 2020. urtean egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2022.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2020an norgehiagoka erregimenean dirulaguntzak emateko programa desberdinen deialdi bateratuaren oinarri orokorrak onartzea.

**Bigarrena:** Oinarri orokorren eranskin moduan doazen zinpeko aitorpena eta oinarri espezifikokoak onartzea:

1. eranskina. Zinpeko Aitorpena.
2. eranskina. Gizarte Ongizatea saila.
  - 2.1. Gizarte Zerbitzuetako egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
3. eranskina. Ingurumen saila.
  - 3.1. Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
4. eranskina. Kirol saila.
  - 4.1. Kirol elkarten ohiko kirol egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
  - 4.2. Emakumeen eta gizonen berdintasun kirol-jardueretako planak burutzeko dirulaguntzak.
  - 4.3. Kirol egokitutako jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
  - 4.4. Kirol elkarten ez diren kirol jarduerak burutzeko dirulaguntzak.
5. eranskina. Kultura saila.
  - 5.1. Kultur arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.
6. eranskina. Nekazaritza eta Abeltzaintza saila.
  - 6.1. Nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak.

**Hirugarrena:** Eranskin bakoitzari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida hauen kargura joango da:

- 2.1. eranskina: 1.8000.481.231.03.02.2020 (12.000 euro)
- 3.1. eranskina: 1.6100.480.172.00.01.2020 (5.000 euro)
- 4.1. eranskina: 1.4300.481.341.00.01.2020 (50.000 euro)



Usurbilgo Udala

- 4.2. eranskina: 1.4300.481.341.00.02.2020 (5.000 euro)
- 4.3. eranskina: 1.4300.481.341.00.06.2020 (3.000 euro)
- 4.4. eranskina: 1.4300.481.341.00.07.2020 (1.000 euro)
- 5.1. eranskina: 1.4000.481.334.00.03.2020 (80.000 euro)
- 6.1. eranskina: 1.6200.481.412.00.03.2020 (15.000 euro)

**Laugarrena:** Oinarriei buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian argitaratzea.

**Bosgarrena:** Erabaki honen berri kontuhartzaileari ematea.

#### **4.- DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEI ERANTZUTEKO 2020KO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp. Zkia.: GZ.42/2019-0004

#### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz (barneratzea zentro psikiatriko batean, kartzelan, drogamenpekotasun zentro batean) herritik kanpo egon eta beraien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorrien gastuak diruz lagundu nahi ditu.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak aurrekontu partida bat ezarri du aipaturiko egoeran dauden pertsonen senideei joan-etorri gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko.

#### **Eta kontutan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen
- Diru laguntzak arautzen dituen ordenantza (GAO, 2008/07/01)
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideek egiten dituzten joan-etorri bidaien gastuak diruz laguntzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbatekoa aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.480.231.03.03

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.



Usurbilgo Udala

**Laugarrena:** Hogeia egun balioduneko epea ematea interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

## 5.- IGOGAILUAK INSTALATZEKO 2020KO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: GZ.42/2019-0003

### Ikusirik

Usurbilgo Udalak, herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailuaren instalazioa bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu, 2019. urtean zehar amaitutako instalazio jarduerak diruz laguntzeko. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. Kapituluaren I. Atalak ezartzen duena jarraiki.

### Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### ERABAKIA

**Lehenengoa:** Herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko diru-laguntzen oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena: 1.8000.780.231.03.01. Dirulaguntza irekiak: igogailuak instalatzeko.


**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeia egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bosgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## 6.- NORGEHIAGOKA ERREGIMENEOAK EZ DIREN KIROL ARLOKO 2020KO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

### Ikusirik



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, kirol elkarteek, bestelako kirol erakundeek eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten kirol ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko dituen oinarriak atera nahi ditu 2020 urtean zehar egingo diren jarduerak diruz laguntzeko.

Oinarri hauen helburua 2020 urtean kirol egitasmoak burutuko dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri dirulaguntzak ematea da. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III. kapituluaren I. Atalak ezartzen duena.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2020an norgehiagoka erregimenekoak ez diren Kirol egitasmoak garatzeko dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidaren azaltzen diren diru izendapenak:

143	00	481	341	00	03	Laguntza bereziak	5.400 €
143	00	481	341	00	04	Kirol teknikoen prestakuntza	1.000 €
43	00	481	341	00	08	Kirol mediku azterketa	9.000 €

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udalaren web orrian eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Hogeita egun balioduneko epea ematea interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

## **7.- USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA EKONOMIKO BERRI BAT ABIAN IPINI NAHI DUTEN EKINTZAILEENTZAT LOKALAREN ALOKAIURAKO 2020KO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: HE.06/2019-62

### **Ikusirik**

Usurbilgo Udalak, 2020an ekintzaileei laguntzeko eta Usurbilen hutsik dauden merkataritza



Usurbilgo Udala

lokaletan jarduera ekonomiko berriak sustatzeko asmoz, lokalaren alokairurako diru-laguntza arautu du.

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatuak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2020. urtean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonorentzat, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda ere, Usurbil edo beste udalerrri bat. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

### **ERABAKIA**

**Lehenengoa:** 2020an Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat ipini nahi duen ekintzailearentzat dirulaguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi erantsen zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Diru-laguntza aurrekontu-partida honen kargura joango da 1.5000.481.241.00.02, gehienez ere 7.200 € erabiliko dira 1. urteko alokairurako eta 4.800 € bigarren urterako.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Eskerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2020ko irailaren 30 arte. Ebazpenak bi epetan emango dira: lehenengoa, 2020ko apirilaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena, eta bigarrena, 2020ko irailaren 30 arte aurkeztu dituzten eskariena.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

### **8.- EKINTZAILEENTZAT KABIENE ELKARTEAK DUEN ELKARLAN GUNEAREN ERABILERARAKO 2020KO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (HASIZ HAZI BEKA).**

Esp.zk.: HE.06/2019-63

### **Ikusirik**





Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalak, 2020an proiektu berri bat duen ekintzaileari laguntzeko bideratuko du Hasiz Hazi beka.

Beka hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Beterri -ekinean zerbitzutik tutorizazio bat ere emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio

Oinarri hauen helburua da, ekintzaileak bere enpresa proiektua garatzen duen bitartean laguntzeko baliatuko diren arauak biltzea, norgehiagoka erregimenean eta 2020. urterako.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

#### **Eta kontuan harturik**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakume eta Gizonen berdintasunerakoa.

Tokiko

### **EBAZPEN-PROPOSAMENA**

**Lehenengoa:** 2020rako Hasiz Hazi bekaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

**Bigarrena:** Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko 1.5000.481.241.00.03 partidatik ezartzen diren 2.178 €.

**Hirugarrena:** Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**Laugarrena:** Eskerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2020ko irailaren 30 arte.

**Bostgarrena:** Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

#### **9.- SANTUENEA 18 ETXEAN IGOGAILUA JARTZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0006

SANTUENEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20438859) ordezkartzan diharduen DAVID CALVILLA HIDALGO jaunak, Santuenea 18 etxean igogailua jartzeko udal baimena eskatu du.




Usurbilgo Udala

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 179.498,84 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 865 €
	Fidantza (%120): 1.038 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2019ko azaroaren 22an ALDEKO txostena eman du.

Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza onartu zuen behin betikoz (GAO, 23. zenbakia, 2014-02-05).

Bestalde, Alkateak 2019ko abenduaren 2an emandako 2019/1031 dekretuaren bidez, SANTUENEA 18 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEARI (IFK: H20438859) administrazio-emakida esleitzea Santuenea 18 etxean igogailu bat ezartzeko ezinbestean hartu beharreko jabari publikoko 4,39 m<sup>2</sup>-ko azaleraren erabilera pribatiborako administrazio-emakida ematea erabaki zuen. Administrazio-emakida 2019ko abenduaren 9an formalizatu zen dagokion hitzarmena izenpetuz.



Gauzak horrela, Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzaren xedapenak kontutan izanik, igogailua ezartzeko beharrezko administrazio-emakida burutu dela jakinik, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** SANTUENEA 18 ETXeko JABEKIDEEN ELKARTEAREN (IFK: H20438859) ordezkartzan diharduen DAVID CALVILLA HIDALGO jaunari, Santuenea 18 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**


- Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 865 eurotakoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.038 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**1.038 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2019-0006*" jarriaz kontzeptuan.

- Obrei hasiera ofiziala emateko **ZUINKETA AKTA izenpetu beharko da** udal aparejadorearekin, okupatuko den jabari publikoko azalera zehaztuz.
- DAVID CALVILLA HIDALGO arkitektoak 2018ko abenduan (EHAE0 2018-12-27) idatzitako Proiektuari eta 2019ko urriaren 1ean aurkeztutako dokumentazio osagarriari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariak bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- JABARI PUBLIKOKO LURZORUA OKUPATZEA. Igogailua eraiki ahal izateko eraikinaren azalera 4,39 m<sup>2</sup>-tan haunditu behar da, horretarako dagokion administrazio-emakida formalizatu da.
- Igogailuaren obra egikaritzearekin batera, **interesdunak sarrera aurreko farola lekuz aldatu beharko du**, ondoko irudian zehaztutako tokira mugituz, eta horretarako aurrez udaleko zerbitzuekin hitz eginda eta hauen oniritzia jasota.



Usurbilgo Udala



- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- ERAIKIGARRITASUN HAUNDITZEA. Plenoak 2014ko urtarrilaren 28an behin betikoz onartutako irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantzako 6. artikuluan —*Beste baldintza batzuk*— xedatutakoaren arabera: «1. Ordenantza honen ondorioetarako, lehendik dagoen eraikin batean igogailu bat jartzea edo irisgarritasuna erraztuko lukeen beste instalazioen bat jartzea, beharrezkoa den zerbait ezartzea da, etxebizitzaren funtzionaltasunarako oinarrizko zerbitzu bat. Beraz, instalazio hori jartzeko behar den azalera (teknikoki beharrezkoa denean, eraikigarritasun hazkundera sor dezakeen etxebizitzaren elementu pribatiboen egokitzapena barne) ez du ekarriko azalera eraikigarriaren gehitze edo goititzerik, eta beraz, Planeamenduak ezarritako gehieneko eraikigarritasuna agortua duten eraikinetan ere jarri ahal izango dira.»
- Igogailua ezartzeko egin beharreko obra lanek, oro har, indarrean diren *Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 20/1997 Legea irisgarritasuna sustatzeakoa, 68/2000 Dekretua hiri-inguruneen, espazioa publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioak eta Irisgarritasun baldintzak hobetzeko udal ordenantza bete beharko ditu.*
- Suteen aurkako babeserako neurri orekatzaileak edo konpentsaileak ezarri beharko dira, proiektuan finkatu den bezala.
- Soinu araudiari dagokionean, ezinbestean bete beharko da soinuen inguruan



Usurbilgo Udala

indarrean dagoen araudia; zehazki 37/2003 Hotsaren Legea eta hura garatzen duen 1367/2007 dekretua. Etxebizitza barnetan ezingo dira finkatutako soinu baremo gehiengoak gainditu eta beharrezkoa balitz horretarako neurri/obra gehigarriak hartu/egin beharko dira bai proiektuan eta baita obren egikaritzan.

- Orohar indarrean den araudia bete beharko da. Orohar, bete beharko dira indarrean den araudiak ezarritako baldintzak (AASS, irisgarritasun araudiak , EKT, Tentsio Baxuko Erreglamendua, Soinu araudia, ... e.a.).
- **OBRA BAIMENAREN EPEAK:**
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obren egikaritzan zehar administrazio-emakidaz utzitakoaz gain, lurzoru publikoa okupatu behar bada (puntu garbiarekin, adibidez), berriazko baimena lortu beharko da.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - Obra Amaierako planoak, likidazioa eta ziurtagiria, obra zuzendaritzak izenpetuak eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsiak; non ziurtatzen den obra baimenaren baldintzak bete eta indarrean den araudiaren betetzea bermatzen dela.
  - Obra amaierako argazkiak.
  - Igoailua funtzionamenduan jartzeko Industria sailaren ziurtagiria/baimena.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## **10.- A-96 (PORTALMUSU) ETA A-97 (KOMENTUA) EREMUETAKO BIRPARTZELAKETA**



Usurbilgo Udala

## **PROIEKTUKO P.1 PARTZELAN BERRIKUNTZA-ZENTROA ETA ZAINTZADUN ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Puntu hau mahai gainean geratu da.

### **11.- PUELABERRI BASERRIKO OBRAK LEGEZTATZEKO UDAL BAIMENA BERRITZEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2017-0450

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urriaren 9an, zera erabaki zuen: JUAN IGNACIO ASTIAZARAN LASA jaunari, Puelaberri baserriko obrak legeztatzeke udal baimena ematea.

#### BAIMENA BERRITZEKO ESKAERA

Orain berriz, JUAN IGNACIO ASTIAZARAN LASA jaunak, arrazoi desberdinak tarteko orain arte obrak ezin izan dituela burutu adierazi ostean, urte berriarekin obrak burutzeko aukera izan dezaketela ikusirik, bere egunean emandako baimena berritzea eskatu du.

<b>OBRAREN EZAUGARRIAK</b>	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	107.500,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 2.000 €
	Fidantza (%120): 2.400 €

#### TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta espedieneko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2019ko azaroaren 27an ALDEKO txostena ematearekin batera, Jone Miner Aginaga udal arkitektoak 2018ko irailaren 28an ezarritako baldintza berak ezarri ditu.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

#### **ERABAKIA**

**LEHENDABIZI:** JUAN IGNACIO ASTIAZARAN LASA jaunari, Puelaberri baserriko obrak legeztatzeke udal baimena berritzea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**



Usurbilgo Udala

1. Obrak hasi aurretik **dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da eta bertan bizigarritasun baldintzen justifikazioa barneratu beharko da.
2. Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 2.000 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (2.400 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

**2.400 €-ko fidantza**, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2017-0450*" jarriaz kontzeptuan.

- Katrin Marrero Vizcaino arkitektoak 2017ko martxoan idatzitako Proiektuari eta 2018ko irailaren 27an aurkeztutako eranskineko planoen arabera egin beharko da obra, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak zein udal aparejadoreak beraien txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Edonola, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Testu Bategina, EKT, Tentsio Baxuko Elektrindarraren Erregelamendua eta indarrean den aplikaziozko araudia bete beharko da.
- Ur edangarriaren hartunea ezarriko da. Udal ur saretik Puelaberri baserriko ur-horniketa burutzeko beharrezko azpiegitura obra guztiak interesatuaren kontura izango dira.
- Uren isurketa indarrean dagoen arazketa Lege eta Araudiari lotetsiko zaio.
- Fosa septika bat ezarriko da, ur zikinak isuri aurretik bertan jasoz. Fosa Septikoari dagokionean, etxe horretako bizilagunen eta beharren proportzioan eraikiko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
  - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek



Usurbilgo Udala

lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Obralaren Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.  
1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.
- Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datoze adieraziz.
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
  - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak diotenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
  - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
  - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
  - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**